

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zeregin garrantzitsuei lotuta, badaude kanpoko enpresen eta kanpoko langileen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak. Bestalde, kanpoko enpresen esku utzi daitezkeenak ere badaude, produkzioa, teknikari lana, publizitatea eta halako kontuak.

Aurretik esandakoari erreparatuz, pentsatu dugu gure enpresak funtsezko jarduera gehiago baldin baditu, hobeto etorriko zitzaiquila ekonomikoki, enpresako bazkideen artean egin ditugunez horietako hainbat, kostuak murrizteko aukera emango baitigu.

Garazi, gure enpresako materialaz, garraioaz eta mantenuaz arduratuko da, hau da, takilak tokiz mugituko dituen pertsona izango da eta kamioiarekin piezak tailerrera eramango dituena, eta honekin batera takilen mantenuaz arduratuko dena. Takilaren bat puskatuz gero, bera izango da takila konpontzera joango den teknikaria.

Eñauti dagokionez, marrazketa tekniko eta imaginazioa erabiltzea asko gustatzen zaio. Horregatik, berak egin du takilaren diseinua. Hasiera batean, zirriborro batuk egin zituen eta taldekideoi egokiena iruditzen zitzaiquinarekin, bozeto horretan oinarrituta, takilaren diseinua zehaztu genuen eta ondoren, takilaren behin betiko marrazkia egin zuen. Horrez gain pentsatu dugu, bera izango dela takilaren hobekuntzaz arduratuko den pertsona.

Markel, gure enpresako kontuak edo finantzak eramateaz arduratuko dena izango da, matematiketan oso ona izan delako txikitatik. Bera arduratuko da gastu guztiak kontrolatzeaz, fakturak egunean eramatearekin batera. Modu berean, behar diren baimenak eskuratuko eta ezustekoak konponduko ditu.

Sararen inguruan, bezeroekin harremanetan mantentzeaz, plataformaz eta negoziatzeaz arduratuko da, web orriaz gain. Bera aukeratu dugu eginkizun honetarako egokiena iruditzen zaigulako taldekideen artean sozializatzeko eta kontra egiteko dituen gaitasunengatik.

Hasiera batean, irabaziak ez dira oso handiak izango, alabaina, bezero gehiago izan hala etekinak gora egingo dute. Era berean, bilerak ere egingo ditugu hilabeteko langile guztien artean takilen inguruko garapena aztertzeko, hau da, dituen arazoei konponbidea emateko eta ideia berriak gehitzeko. Ez hori bakarrik, plataformako edo sareko jarduerari lotuta, denok edukiko dugu zer egin. Lau

taldekideak egongo gara aktibo sare sozialetan, Instagram-ean bereziki eta ez hori bakarrik, bertan gure takilen publizitatea egingo dugu.

Takilak muntatzeko jendea ere kontratatuko dugu, hauek beste enpresei eskatutako materialekin takilak gauzatuko dituzte eta beraien laguntzarekin lana azkarrago eta hobeto egingo dugu. Propaganda eta publizitatea egiten lagunduko digun norbait ere kontratatu beharko dugu, guk gai horri buruz asko ez dakigu eta, horregatik Markelek duen lagun bati eskatuko diogu faborea. Berekin ikasketak egin zituen lagun bat da, lan gabezia dago eta Markelen ustez, soldata txiki batengatik lan egitea ez du ukatuko.

GEMS
×
TAKILAK